

Carlos Santamaria liburutegi berriaren proiektua aurkeztu du EHUK

Mikel Goñi

Carlos Santamaria donostiarraren izena eramango duen eraikina, campuseko liburutegi nagusia izango da; horrez gain, hainbat sailen egoitza ere izango da. Arduradunek espero dute lanak uda partean hasia bi urteren buruan martxan egotea. Unibertsitatearen ordezkarien nahia eraikina hiriarentzat eta Gipuzkoako kanpusarentzat emblema bihurtzea da. Euskal Herriko Unibertsitateko errektore, Juan Ignacio Perez Iglesiasek esan duenez, zentroaren sorrerak campusaren autonomia ekarriko du. Helburu horri lagunduko diote liburutegi zentralizatuak eta gizarte zientzieen alorrari eskeiniko zaizkion eraikinaren beste atalek.

Gipuzkoako campusean ohitura bilakatu da eraikinei euskal unibertsitatearen alde lan egin duten lurraldeko pertsonen izena jartzea. Oraingo honetan Easo kalean jaio zen Carlos Santamaria hautatu dute, besteak beste, Euskal Kontseilu Nagusiko hezkuntza sailburu gisa unibertsitatearen alde egindako lanagatik.

Gizarte zientzien egoitza

Canpuseko bibliotekez gain Carlos Santamaria eraikina EHUK hirian barrena barreiatu dituen institutuen eta katedren egoitza izango da. Hain zuzen ere, egun Mirakruz gaineko Villa Asuncionen eta Ategorrietako Villa Soroan dauden kriminologia edota hizkuntzen pedagogia bezalako institutuek izango dute tokia egoitza berrian.

Institutu hauek campusaren nortasuna aldatzen lagunduko dutela esan zuen Iglesiasek. Ezagutza alorren presetzia orekatuko du eraikinak; orain arte, zientziek izan baitute pisu gehien Donostiako unibertsitate publikoaren ikasgunean. Carlos Santamaria egoitzak bilduko ditu humanitate zientziekin zerikusia duten unibertsitate sailak eta institutuak.

Horiek guztiak ez ezik, atzerriko ikasleentzako hizkuntza gelak edota ikusentzuneke ikasbaliabideak sortzeko lantegia konkatuko dituzte bertan.

Zabaltzeak jarraituko du

Orubearen forma hartuko du eraikuntzak eta, honenbestez, borobila izango da. Ibaetako errotondaren parean kokatuko da eraikin berria eta 16.000 metro karratu izango ditu azaleran. Carlos Santamaria zentroaren proiektua egiteko garaian argi naturala jasotzea eta sarrera publikoari begira egotea hartu dira.

Ekipamendu berriak, ordea, ez ditu bukatzen campuserako zabaltze lanak. Zehaztapenik eman ez bazuten ere, Iglesiasek arabera, Unibertsitateak kanpoko ikasleentzat egoitza eta ikerketa gehiago egiteko tokiak dituzte buruan.